

ZIORTZA (VII): ILLOBIETAKO IDAZKIAK (LAUDAK) KORUA, SAKRISTIA, TORREA

IDAZKIAK

Eleizearen barruan aitamener bereizia zor jake illobietako idazki edo laudai. Beereen gainean dagoz arri -lozen artean.

Geienak txaututa (gastuta) dagoz, irakurri eziñeko eran, baiña bi ondo zainduta agiri dira Mikel Deunaren eleiz-tokiaren ondoan. Batak Muxika sendiaren ikurdia dauka eta, apaingarri lez, leoiak, aingeruak otoizka, egaztiak eta inguruan mats-mordak, gotiku tankerako beste apaingarri batzukaz. Beste bat Eibar'eko Untzuetan sendiaren ikurdia da (zugatza, onen erdian otso bi, antzarra sugeagaz eta idazki au erderaz: "Guztiok biotz-zabalak". Goian buru-oskol bat landarazko apaingarriakaz eta beste idazki au erderaz: "Untzuetako Jauna dan Ibarra'tar Pedro kontulariak agindu eban au ipinteko 1544".

Eleizearen erdi-erdian dago beste illobi -idazki edo lauda bat, irakurri eziñekoa: Kurutze bat eta onen oiñean, barruan kurutzea dauan makobil bat eta goian idazki au: "1448. P. Lopez Ibaseta".

Eleizearen atzeko aldean be, ate nagusiaren ondoan, lauden ondakin batzuk eta apingarri batzuk agiri dira, baita Muxika ta Butron sendiaren ikurdiagaz dagoan bat eta beste bat Bolibar-Jauregi'rena errota-arri bategaz.

KORUA TA ORGANUA

Sabai bi beeratuak eta erdian age bat dauala dago korua atzean, erriaren lekuaren erdian. Arrizko mailladi zabal bat dauka igoteko.

Koru onetan ez dago ezer bereiztekorik, organua izan ezik: 1670.n urtean ipiñia da eta 8.000 errial kostatzen. Lenago beste organu bat egoan Irusta'tar Diego abatak erositia. XVIII gizaldiaren azken-inguruan konpondu eben organu au Frantze'tik etorritako konpontzaille batzuk, baiña orain ez dabil.

Koruan egoan lenago kaxa bat eta onen barruan lekaidetxearen agiritagia baiña au Bilbao'ko Aldundiaren Liburutegira croan eben. Ekarri bear leuke!

Jesarleku arrunt batzuk dagoz, zurezkoak eta zarrak, eta erdian liburu-mutilla edo fazistola abesti-liburuak irakurteko. Pergaminozko liburu aundi oneik 1790n, urtean egin ziran, apurtuta egozan lengoen ordeiz irakurteko.

Korupuan Bateo-lekua ta ontzia dagoz. Azkenengo au 1841'ekoa da eta inguruan zurezko sarea dauka, 1666n. urtekoa.



SAKRISTIA

Sakristia elizearen buru-aldean dago eta altara-ingurura dauka sarrerea. 1606n. urtean egiña da, lenago egoan beste baten lekuan. Altzariak intxaurkizkoak dira, Markiñako arotz batek egiñak, Sagrario bat dauka, bear ba'da Aiala'ko Juan'ek egiña eta onen atean Ecce Homo'ren irudia.

Ikusgarriak dira baita, eskuak garbitzeko ontzia eta XVII gizaldiko kustumia eta zarragoa dan eleizbidetarako kurutze bat, au ber-jaiotza aldiko tankerakoa.

TORREA

Eleizearen egoaldean dagoan arbotantearen oiñaren gainean dago oiñarrituta torre lautua, beronen apaingarriak teillatuaren maillan dirala. Emendik begiratuta argi ikusten dira Lekaide-Etxearen toki guztiak.

Apingarriak teillatupean dagoz eta gainean kanpaien lekua. Au gizaldi onen asieran egiña da: burdiñezko kanpai-lekua kanpai bigaz. Torrearen sorkaldera ta sarkaldera, erpindun arku aundi bi dagoz, antza dagonez torrea-aren astuntasunari eusteko.

OLAZAR'tar Martin'ek